

NON BIZI GARA?



NON BIZI GARA?

Lehen Hezkuntza 4 . maila

Irakaslearentzako ikas-egoeren gida

Inplikaturiko ikasgaiak:

**Ingurune
Euskera**

**Saio kopurua:
8 aste (26 saio)**

Ikas-egoeraren markoa:

A. Testuingurua:

2.022an, gure planetako biztanleria 8.000 milioitara iritsi zen. Kopuru horretatik, gutxi batzuk Euskal Herrian bizi dira. Alde handiak daude munduko biztanleen artean. Batzuk hirietan bizi dira, beste batzuk, berriz, herrietan. Biztanle gazteak, helduak eta adinekoak daude. Lurralde bakoitzak bere ezaugarriak ditu: mendiak, ibaiak, klima, fauna, landaredia... Zure ustez, zure bizilekua nahiko ezagutzen al duzu?

B. Abiapuntua:

Galdetu ikasleei ea bateren bat beste herriren batetik iritsi den ikastetxea dagoen herrira. Horrela balitz, eskatu haien esperientziaren berri emateko: nongoak diren jatorriz, zergatik aldatu ziren lekuz, aldian behin itzultzen diren jaioterrira, zer gustatzen zaien gehien bizi diren lekutik, zer gutxien eta abar.

C. Azken ekoizpena:

Ikasketa-kooperatiboaren ildotik, talde-lanetan banatuta, gairi buruzko aurkezpenak egitea. Aurkezpenak amaitu ondoren talde bakoitzak bere lana gelakideen aurrean aurkeztuko du, eta grabatuko dugu.

Proposamenaren justifikazioa:

A. Proposamenaren xedea:

Euskal Herria, bizi garen lurraldearen ezaugarri geografikoak, ondarea, kultura eta hizkuntza ezagutzea.

B. Argudiaketa kurrikularra:

Proiektu honek aukera desberdinak ematen ditu curriculumenean agertzen diren konpetentziak garatzeko. Irteera-profilean dauden deskriptore anitzekin lotura du, oinarrizko konpetentzia hauek garatzeko: kontzientzia eta adierazpide kulturalerako konpetentzia; ekintzailetza-konpetentzia; matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentzia; konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa; eta herritartasunerako konpetentzia.

C. Helburu didaktikoak:

HIZKUNTZA -KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA (HKK)

- Talde-lanean jarduteko hitz-txandak errespetatzea.
- Beste taldekideen iritziak errespetatzea.
- Euskal Herriko probintzien inguruan azalpen-testu bat idaztea.
- Sortutako azalpen testua gelakideen aurrean ahoz azaltzea.
- Azalpen testua idazteko informazio iturri desberdinak erabiltzea.
- Egindakoari buruz hausnarketa egitea eta ebaluatzea.

KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE) MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA ETA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA INGENIERITZARAKO KONPETENTZIA (STEM)

-Proiektuak modu gidatuan egitea eredu desberdinak diseinatuz eta fabrikatuz.

- Talde kooperatiboan aurkezpen bat sortzea

KONPETENTZIA DIGITALA (KD)

-Ikasitako ideiak eta ezagutzak adierazteko google - aurkezpena editatzea.

-Informazio desberdinak lortzeko(bideoak) Classroom erabiltzea.

-Ikasitakoa indartzeko eta ebaluaketan laguntzeko educaplay ariketak eta Kahoot egitea.

KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA (KPSII)

-Jasotako informazioa aukeratzea eta antolatzea.

-Taldean jarduteko egitura kooperatiboak eta rolak erabiltzea.

-Autoebaluazioa eta koebaluazioa egiteko tresnak erabiltzea.

HERRITARTASUN KONPETENTZIA (HK)

- Gaurko egunean ingurunean dauden arazoei buruz alternatibak eta ideiak proposatzea.

EKINTZAILETZA- KONPETENTZIA (EK)

-Proiektua egiterakoan faseak jarraitzea: plangintza, ekoizpena eta balorazioa.

-Iniziatiba erakustea.

KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA (KAK)

-Euskal Herriko kultura eta arte-ondarea ezagutzea eta errespetatzea.

ARGUDIAKETA KURRIKULARRA

Ikas-egoeraren
izenburua

arloan: NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA LH II

Funts. Konp.	Deskr. Opera.	Konpetentzia espezifikoak	Ebalu. Irizp.	Oinarrizko jakintzak
HKK	HKK1 HKK2 HKK3	1. Informazioa bilatzea eta hautatzea bitarteko eta baliabide digital eta analogikoen bidez, bai banakabai taldean, haren fidagarritasuna eta ebaluatuz, teknologia digitalak modu seguruan eta iraunkorrean erabiltzeko ohiturak hartuz, informazio hori ezagutza bihurtzeko eta modu antolatuan eta sortzailean komunikatzeko.	1.1 Jarraian ezarritako moduan, informazioa bilatzeko eta hautatzeko oinarrizko estrategiak erabiltzea, eredu jakinbati jarraituz. 1.2 Informazioa banaka eta taldeka bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri seguru eta fidagarri kritikoki erabilita, oinarrizko lexiko zientifikoa bereganatuta eta ingurune natural, sozial eta kulturalarekin lotutako ikerketetan aplikatuta.	A Kultura zientifikoa 1. Jarduera zientifikorako hastapenak 1.2 Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuetan informazioa bilatzeko, hautatzeko eta zabaltzeko estrategiak, bitarteko eta baliabide digital eta analogikoen bidez. Erabilitako iturrien egiletza.* 1.4 Ikerlanaren berezko estrategiak, jakin-minarekin, ekimenarekin, iraunkortasunarekin eta norberaren lanerako ahaleginarekin lotutako ohiturak eta jarrerak garatzen laguntzen dutenak, baibakarka, bai taldean, genero-ikuspegia kontuan hartuta.*
STEM	STEM2 STEM3		1.3 Gailu eta baliabide digitalak modu seguru eta iraunkorrean erabiltzea, zereginaren premien eta helburuen eta hezkuntza-testuinguruaren arabera, eta eduki digital errazak sortzea.	
KD	KD1 KD3 KD4			
KPSII	KPSII1 KPSII3			
HK	HK3			
EK	EK3			
KAKK	KAKK1	3. Arazo-egoerak diziplinarteko proiektuen bidez ebaztea, diseinu-pentsamendua eta pentsamendu konputazionala erabiliz, premia zehatzei erantzungo dien produktu sortzaile eta berritzaile bat lankidetzan sortzeko.	3.3 Diseinu-arazo bati irtenbidea emango dion amaierako produktu erraz bat taldean eraikitzea, prototipo edo soluzio digital desberdinak probatuz eta tresna, gailu, teknika eta material egokiak modu seguruan erabiliz. 3.4 Diseinu-proiektuen emaitza aurkeztea, egindako urratsak azaltzea eta prototipo edo soluzio digital horrek proiektuaren baldintzak zergatik betetzen dituen justifikatzea.	2. Bizitza gure planetan 2.1 Naturaren erresumak ikuspegi orokor eta integratu batetik, ekosistemen ezaugarrien azterketa eta analisisia oinarri hartuta. Elementuen eta baliabideen arteko oreka. Euskal Herriko ekosistemak.
		5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko	5.1 Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea, ikerketa-metodologiak bidez eta tresna eta prozesu egokiak erabiliz.	B. Teknologia eta digitalizazioa 1. Ikaskuntza-ingurune pertsonala digitalizatzea 1.1 Gailu eta baliabide digitalak hezkuntza-testuinguruaren beharren arabera.* 1.2 Interneten informazio bilatzeko estrategia gidatu seguruak eta

		eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez. 5.2 Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementuen arteko konexio errazak identifikatzea, eta ezartzen diren harremanak ulertzea. 5.4. Natura- eta kultura-ondarea balioestea eta babestea, guztien ondasuntzat jotzea, ondare horretaz gozatzeko errespetuzko jokabideak hartzea eta ondare hori kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak proposatzea.	eraginkorrak (balorazioa, diskriminazioa, hautaketa eta antolaketa).[*] Interneten nabigatzeko eta ikaskuntzako ingurune digital pertsonala babesteko oinarrizko segurtasun- eta pribatutasun-arauak.[*] 1.4 Etiketa digitala, kortesiazko eta errespetuzko oinarrizko arauak eta komunikazio digitalean problemak ebazteko estrategiak. 2. Diseinu eta pentsamendu konputazionalako proiektuak
	9. Gizarte-ingurunean eraginkortasunez eta modu eraikitzailean parte hartzea, Adierazpen Unibertsalek eta Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legeriak bultzatutako printzipio demokratikoek ezartzen dituzten balioak errespetatuz, erakunde demokratikoek bakea eta segurtasuna mantentzeko duten funtzioa baloratuz, errespetuzko harremanak sortzeko eta gatazken kudeaketa baketsua eta elkarriketa bidezkoa sustatzeko.	9.2. Hainbat administrazioaren (tokiko, eskualdeko eta lurraldekoen) gobernu-organo eta funtzio nagusiak ezagutzea, horiek kudeatzeak herritarrentzat eta parte-hartze demokratikoarentzat duen garrantzia baloratuta.	2.2 Proiektua gauzatzeko material, erreminta eta objektu egokiak. 2.3 Talde-lanerako teknika kooperatibo errazak, eta gatazkek elkarriketaren bidez kudeatzeko eta jokabide enpatiko eta inklusiboak sustatzeko estrategiak.[*] C. Gizarteak eta lurraldeak 1. Egungo munduaren erronkak 1.4 Erronka demografikoak. Espazioaren betetzea, populazioaren banaketa eta arazo eta erronka demografiko nagusien analisia. Biztanleriaren irudikapen grafikoa eta kartografikoa. Lurraldearen antolaketa Euskal Herrian, Espainian eta Europan.[*] 3. Alfabetatze zibikoa 3.1 Gizartean bizitzeko konpromisoak eta arauak.[*] 3.2 Inguruko ohitura, tradizio eta adierazpen etniko-kulturalekiko begirada kritikoa. Ingurune kultura-aniztasuna eta gizarte-kohesioa errespetatzea. Bakearen eta indarkeriarik ezaren

			kultura.* 3.3 Espainiaren antolaketa politikoa eta lurraldekoa. 3.4 Gizartearen antolaketa. Tokiko, eskualdeko eta nazioko erakunde eta entitate nagusiak, eta horiek ematen dituzten zerbitzuak. Zergak: horien zeregin soziala. Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio-egitura eta Espainiako Estatuaren testuinguruan duen kokapena.*
--	--	--	---

arloa: EUSKARA ETA LITERATURA ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA.

		2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena identifikatuz eta alderdi formalak eta oinarritzko edukiko alderdiak baloratuz, ezagutza eraikitze eta komunikazio-premiei erantzuteko.	2.1 Ahozko testu eta testu multimodal errazen zentzua ulertzea, ideia nagusiak, mezu esplizituak eta mezu inpliziturik errazenak ezagutuz eta edukiaren eta hitzezkoak ez diren elementurik oinarritzkoen balorazio kritikoan laguntzarekin aurrera eginez.	B. Komunikazioa 1. Hizkuntzaren erabilera 1.5 Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gainhartu.
		4. Testu idatzi eta multimodalak ulertzea eta interpretatzea, testu horien zentzu globala, ideia nagusiak eta informazio esplizitua hartuz, eta alderdi formalei eta edukiei buruzko oinarritzko gogoeta eginez, ezagutza eskuratzeko eta eraikitze eta askotariko komunikazio-beharrei eta -interesei erantzuteko.	4.1 Zenbait arlotako eta askotariko xedeetarako testu idatzi eta multimodal errazak isilik eta ozenki irakurtzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua identifikatuz eta informazio esplizitua laguntzarekin ezagutuz.	1.6 *Hitzezko eta ez-hitzezko hizkuntzaren erabilera nabarmen diskriminatzaileak hautemateko pautak. 2. Ahozko ulermena, komunikazioa eta elkarrekintza 2.1 Ahoskera eta intonazio egokiaz adierazteko interesa.
		5. Testu idatzi eta multimodalak zuzentasun gramatikalez eta ortografikoz sortzea, edukiak zuzen sekuentziatuz eta plangintzarako, idazketarako, berrikuspenerako eta ediziorako oinarritzko estrategiak aplikatuz, ezagutza	5.1 Edukien sekuentzian nolabaiteko koherentzia izango duten testu idatzi eta multimodal errazak zenbait euskarritan eta zuzentasun gramatikala eta ortografikoz sortzea, komunikazio-egoera bakoitzari hobe	2.2 *Ikasgelako egoeretan ahozko-elkarrekintza egokia. Hizkuntza-kortesiaren oinarritzko estrategiak eta norberaren hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioaren autoerregulazioko estrategiak.

		eraikitze eta komunikazio-eskaera zehatzei erantzuteko.	eraikuntza-dion diskurtso-eredua aukeratuz eta idazketaren prozesu ebolutiboaren etapak errespetatuz (plangintza, idazketa eta berrikuspena).	2.3 *Entzute aktiboko estrategiak, gatazkak elkarriketa bidez ebazteko prozesuan. 3. Irakurmena 3.4 *Testu idatziak ulertzeko eta sortzeko prozesuetan, askotariko iturri dokumentaletako testuak irakurtzeko oinarrizko estrategiak. 3.5 *Oinarrizko testu etenak (grafikoak, diagramak, mapak, ordutegiak...).
		6. Bi iturritatik edo gehiagotik datorren informazioa modu planifikatuan bilatzea, hautatzea eta egiaztatzea, informazioaren fidagarritasuna ebaluatuz eta manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak ezagutuz, ezagutza eraldatzeko eta modu sortzailean jakinarazteko, ikuspuntu pertsonaletik eta jabetza intelektuala errespetatuz.	6.1 Bi iturritako edo gehiagoko informazioa bilatzeko, hautatzeko, egiaztatze eta antolatze oinarrizko estrategiak planifikatuta eta lagunduta erabiltzea, fidagarritasuna eta manipulatzeko arriskuak ebaluatuz.	4. Idatzizko produkzioa 4.1 *Idatziz argi eta egoki adierazteko interesa. 4.3 *Idatzizko produkzioen aurkezpen zaindua. 5. Informazio-alfabetatzea
				5.1 *Askotariko iturri dokumentaletan eta zenbait euskarri eta formatutan, informazio errazaren bilaketa gidaturako oinarrizko estrategiak. 5.3 *Zenbait iturritako informazioa alderatzeko oinarrizko estrategiak. 5.5 *Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzeko jarraibideak. D. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa, ahozko edo idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan 3 *Oinarrizko puntuazio- zeinuak, idatzizko testua antolatze mekanismo diren heinean.

			likas-egoeraren izenburua	
--	--	--	------------------------------	--

Jardueren sekuentzia laburra eta ebaluazio adierazleak (irakasleentzako):

A. Hasierako fasea:

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
1.Motibazioa. Gaiari sarrera emateko geografiari eta mapei buruzko bideoak ikusiko ditugu.	1.1. Interesa eta motibazioa adierazten du	Bideoa Bideoa 2 Behaketa
2.Geroago, aurrezagutzak pizteko geografiari eta mapei buruzko aurrezagutza fitxa egingo dute <u>Arkatzak erdira teknika erabiliz.</u> Ondoren, talde handian, egindakoaren ondorioak aterako dira.	2.1.- Taldean lortutako emaitzak partekatzen ditu.	Fitxa Arkatzak erdira behaketa
3.Proiektuaren aurkezpena, gaiaren nondik norakoak ahoz azalduko dira azken produktuarekin batera.	3.1.-Interesa eta motibazioa adierazten du.	Behaketa

B. Garapen-fasea (errenkan ala taulan):

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
4. <u>Europa:</u> Zer dakit? Zer dakiten Europataz ikusteko ondoren dagoen aurrezagutza fitxa egingo dugu lehenengo eta ondoren dagoen bideoa ikusiko dugu. Horrela, gaiari buruz zer dakiten ikusteko aukera izango dugu eta aldi berean mapan kokatzeko aukera izango dute. <u>Arkatzak erdira teknika erabiliz.</u>	4.1. Taldean lortutako emaitzak partekatzen ditu. 4.2. Bideoak ikusi ondoren interesa adierazten du.	Fitxa Arkatzak erdira behaketa Bideoa Behaketa
5. <u>Espainia</u> Zer dakit?	5.1. Taldean lortutako emaitzak	Fitxa

Zer dakiten Espainiatan ikusteko ondoren dagoen aurrezagutza fitxa egingo dugu lehenengo eta ondoren dagoen bideoa ikusiko dugu. Horrela, gaiari buruz zer dakiten ikusteko aukera izango dugu eta aldi berean mapan kokatzeko aukera izango dute.	partekatzen ditu. 5.2. Bideoak ikusi ondoren interesa adierazten du.	Arkatzak erdira behaketa Bideoa Behaketa
6. Euskal herria Zer dakit? Zer dakiten Euskal Herriaz ikusteko ondoren dagoen aurrezagutza fitxa egingo dugu lehenengo eta ondoren dagoen bideoa ikusiko dugu. Horrela, gaiari buruz zer dakiten ikusteko aukera izango dugu eta aldi berean mapan kokatzeko aukera izango dute.	6.1. Taldean lortutako emaitzak partekatzen ditu. 6.2. Bideoak ikusi ondoren interesa adierazten du.	Fitxa Arkatzak erdira behaketa Bideoa 1 Bideoa 2 Behaketa
7. Euskal Herria: Definizioa eta kokapena Geografia gaia ikusterakoan Euskal Herrian zentratuko gara. Horretarako, Euskal Herria testuinguruan jartzeko asmoz eta ezagutzeko bere historia eta informazioa ikusi eta ulertuko dugu bideo eta ppt baten bitartez.	7.1. Teoria taldeka irakurri du. 7.2. Bideoa ikusi ondoren interesa adierazten du. 7.3. Euskal Herriko kokapena ezagutzen du	Aurkezpena Bideoa Teoria Behaketa
8. Euskal Herria: PROBINTZIAK ETA HIRIBURUAK Aurreko informazioa ulertuta classroom-en Euskal Herriko probintziei buruzko ariketak egingo ditugu eta jolasak. Banaka.	8.1. Irakurritakoarekin fitxa eta fitxa interaktiboak erantzuteko gaituta. 8.2. Euskal Herriko probintziak eta hiriburuak ezagutzen ditu	Fitxa Fitxa interaktiboa 1 Fitxa interaktiboa 2 Jolasak 1 Jolasak 2

9. Euskal Herria : Erliebea Erlikebea lantzeko lehenengo erlikebearen kontzeptu nagusienak lantzeko teoria eta bideo batzuk ikusiko ditugu. Ondoren classroom-en Euskal Herriko erlikebeari buruzko ariketak egingo ditugu. Mendiak eta ibaiak.	9.1. Bideoa ikusi ondoren interesa adierazten du. 9.2. Irakurritakoarekin eta ikusitakoarekin fitxa eta fitxa interaktiboak erantzuteko gai da. 9.3. Euskal Herriko mendiak eta ibaiak ezagutzen ditu	Bideoa 1 Bideoa 2 Behaketa Teoria EH mendien fitxa Mendien fitxa interaktiboa Mendien jolasa EH ibaien fitxa EH ibaien fitxa 2 Ibaien jolasa
10. Euskal Herria: Klima Lehenengo Espainiako klimari buruzko bideo bat ikusiko dugu gaiaren nondik norakoak azaltzen dituen. Ondoren classroom-en Euskal Herriko klimari buruzko ariketak egingo ditugu.	10.1. Bideoa ikusi ondoren interesa adierazten du. 10.2. Irakurritakoarekin eta ikusitakoarekin fitxa erantzuteko gai da. 10.3. Euskal Herriko klima desberdinak ezagutzen ditu.	Bideoa Behaketa Teoria Fitxa 1 Fitxa 2
11. Euskal Herria: Landaredia eta fauna	11.1. Irakurritako arekin fitxa erantzuteko	Teoria Fitxa

	gai da. 11.2. Euskal Herriko landaredia eta fauna ezagutzen du.	
12. Euskal Herria: Errepasoa Ikusitako guztia errepasatzeko ariketak.	12.1. Euskal Herriko ezaugarri garrantzitsuenak ezagutzen ditu.	Fitxa interaktiboa

C. Azken fasea (errenkan ala taulan):

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
13. Kahoot edukien ebaluaketa egiteko.	13.1. Landutako edukiak barneratu ditu.	kahoot
14. Gela taldeetan banatu (probintziak beste). Aurretik bildutako galderen datu guztiekin aurkezpen bat egin behar dute. Taldekako kide bakoitzak berari dagokion galderaren diapositiba aurkeztu beharko du.	14.1. Aurkezpena ondo antolatuta dago eta informazio guztia biltzen du. 14.2. Ahozko aurkezpena ondo egin du.	Ahozko azalpenaren behaketa Taldekako lanaren fitxa Atzeraelikatzea
15. Taldekako ebaluaketa eta autoebaluaketa	15.1. Taldea ebaluatuko da	Taldekako ebaluaketa Taldekako kooperatiboko ebaluaketa
...		

Metodologia:**A. Printzipioak (IDU, modelo pedagogikoa...):**

6. Hezkuntza-ekintza inklusiboak askotariko esperientziak, erreferenteak eta ikaskuntzak eskainiko ditu, kulturarteko ikuspegi globaletik, eta ez etnozentrikotik eta androzentrikotik. Modu pertsonalizatuan egokituko zaio ikasle guztien eboluzio-uneari eta ikaskuntza-erritmo pertsonalari.

7. Hezkuntza-praktika prestakuntza-eredu kolaboratiboan oinarrituko da, dinamika globalizatuak eta kooperatiboak bultzatzeko, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruan.

Ikaskuntza-prozesuak hobetuko dituzten ingurune presentzial eta digital berrietarantz joko da.

Era berean, ikaslea bere ikaskuntzaren motor izango den kultura sustatuko da.

8.-Oinarrizko Hezkuntzak ikuspegi humanistatik prestatuko ditu ikasleak jakintzak eta balioak bereganatzeko, gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta konprometituagoa eraiki dadin.

Horretarako, alderdi kognitiboak, emozionalak eta etikoak uztartu beharko dira.

B. Antolakuntza:

Ebaluazio hezigarria aurrera eramango da bere fase guztietan: hasierako ebaluazioa egiteko tresnak erabiliko dira, bai ikasleek eraikuntzaren inguruan dakitena agerian jartzeko.

Ebaluazio-irizpideak ikasleekin partekatuko dira, eta azken produktuen errubrikak edota kontrol-zerrendak era kolaboratiboan eraikiko dira.

Prozesuan zehar, ikasleek feed-back edo atzeraelikadura emango dizkiote elkarri eta irakaslearena ere jasoko dute. Bukaeran, autoebaluazio

-eta koebaluazio-prozesuak jarriko dira martxan; proiektuan zehar, metakognizioa bultzatzeko jarduerak planteatuko dira

C. Baliabideak:**Ebaluazio-prozesua:**

Ebaluazio hezigarria aurrera eramango da bere fase guztietan: hasierako ebaluazioa egiteko tresnak erabiliko dira, bai ikasleek eraikuntzaren inguruan dakitena agerian jartzeko.

Ebaluazio-irizpideak ikasleekin partekatuko dira, eta azken produktuen errubrikak edota kontrol-zerrendak era kolaboratiboan eraikiko dira.

Prozesuan zehar, ikasleek feed- back edo atzeraelikadura emango dizkiote elkarri eta irakaslearena ere jasoko dute. Bukaeran, autoebaluazio -eta koebaluazio- prozesuak jarriko dira martxan; proiektuan zehar, metakognizioa bultzatzeko jarduerak planteatuko dira

Plantillarekin lan egiteko laguntza

Inplikaturiko ikasgaiak: Adierazpen artistikoa, Atzerriko hizkuntza(k), Balore zibiko eta etikoak, Biologia eta Geologia, Digitalizazioa, Ekonomia eta ekintzailetasuna, Euskara: hizkuntza eta literatura, Fisika eta kimika, Formazio pertsonala eta profesionala, Gaztelera: hizkuntza eta literatura, Geografia eta historia, Hezkuntza fisikoa Hezkuntza plastikoa, bisuala eta audiobisuala, Latina, Matematika, Musika, Teknologia, Teknologia eta Digitalizazioa

Saio kopurua: (6-12 saio, 15-60 egun asteko ordu kopuruaren arabera)

Ikas-egoeraren markoa: (Egoera konplexu eta esanguratsuen aurrean jarriko ditugu ikasleak, kompetentzia anitzak aktibatuz eta ikaskuntza berriak garatuz, egoerari erantzuna, irtenbidea emateko.)

- A. Testuingurua:** zein ingurutan kokatzen da arazoa (ingurune pertsonala, soziala, ikas-ingurunea...
- B. Abiapuntua:** Zein testuingurutan agertzen den arazo, erronka, galdera...
- C. Azken ekoizpena:** Ikasleek egingo duten azken ekoizpenaren ezaugarriak.

Proposamenaren justifikazioa:

- A. Xede hezitzailea:** Zergatik da garrantzitsua proposamen hau? Zein da bultzatzen duen ikaskuntza nagusia?
- B. Argumentazio curricularra:** (Taula horizontalean) Funtsezko kompetentziak eta deskriptoreak, kompetentzia espezifikoak (espezifikoki lantzen direnak eta leku arzoak badaude laburtuz eta hasiera bakarrik idatziz), ebaluazio irizpideak eta oinarrizko ezagutzak curriculumetik aukeratuko dira.
- C. Helburu didaktikoak:** Ikas-egoera honetan landu beharreko kompetentzia espezifikoetako ebaluazio irizpideak eta oinarrizko ezagutza zehatzak zehaztuko dira.

Jardueren sekuentzia laburra eta ebaluazio adierazleak (irakasleentzako):

- A. Hasierako fasea:** taula
- B. Garapen-fasea:** taula
- C. Azken fasea:** taula

Metodologia: Espazioen erabilera, erabiliko diren metodologiak eta talde-lanaren bideraketa, hizkuntzen trataera, baliabide pertsonalak eta materialak (ingurune analogiko eta digitalak).

- A. Printzipioak (IDU modelo pedagogikoa...):**
- B. Antolakuntza:** taldekatzeak, gelak, kanpo-espazioak...
- C. Baliabideak:** manipulagarriak, digitalak...

Ebaluazio-prozesua eta tresnak: Ebaluazio hezitzailearen erabilera, tresna analogiko eta digitalak. (Portfolioa, erribrikak, transferentzia...).

Jardueren sekuentzia garatua (ikasleentzako)

